

Sentsibilizatu, prebenitzeko eta arretea emateko

Gaur da azaroaren 25a, Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna. Gaia kezka iturri eta aldarrikapen da erakunde publiko, Mugimendu Feminista, emakume talde zein gizarte eragile askorendako. Norabide berean lan egitea aldarrikatzen dute agente horiek guztiek; sentsibilizazioa, prebentzioa eta biktimarekiko arretea egokiak izan daitezen.

Testua: **Miren Arregi.**

Argazkiak: **Miren Arregi/Ana Murcia.**

Indarkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna da gaur, azaroaren 25a. Indarkeria mota horren muturreko alderdia dira feminizidioak, baina indarkeria matxistak adar asko ditu eta horiek ikusgarri egin eta desagerrarazteko lanean dihardute Mugimendu Feminista, instituzio, emakume talde, gizarte eragile eta norbanako askok eta askok.

Eraildako emakumeak, muturreko alderdia

Adierazi moduan, eraildako emakumeak dira indarkeria matxistaren muturreko alderdia. Datu batzuk ematearren, 2010 eta 2015. urte bitartean 681 emakume erail zituzten Espainian. Zifra ofizialek, aldiz, 354 kasu jasotzen dituzte, gainerakoetan erasotzailearen eta biktimaren artean ez baitzegoen bikote harremanik edo ez baitzen egon iraganean bikote harremanik. Desberdintasun horren arrazoia da 1/2004 Lege Organikoak genero biolentzia bezala jasotzen dituela bikote edo bikote ohien artean gertatzen diren erasoak, eta, hain zuzen ere, horiek dira, besteak beste, bai Mugimendu Feministatik eta baita Abokatuen Elkargotik egiten diren aldarrikapen batzuk. Alegia, emakumeen kontra egiten diren bestelako indarkeria egoerak ere, izan, bortxaketa bat, eraso sexual bat, kaleko irainak... jaso daitezela Lege Organiko horren barruan.

Emakundek emandako datuak begiratura, esan daiteke erailketen bilakaeraren analisiak ez duela joera argi bat erakusten (ikus hurrengo orriko taula), zifrak 71 (2003) eta 54 (2014) artean egon dira. Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak emandako datuen arabera, 2014an, bikotekideak edo bikotekide ohiak eraildako emakume kopurua 54 izan zen estatu mailan. Hiru, EAEn.

Bikotekide edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriaren biktima izan diren emakumeen %53,3k ez zuten jadanik harremanik erasotzailearekin, hau da, harremana amaitua zegoen. Bestalde, kasuen %39,1en ezkontzako lotura zegoen edo egon zen.

Bestetik, 2014an, 778 babes-agindu erregistratu dira. Horietatik %52,6 onartu eta gainerakoak ukatu egin dira. Bizkaian daude irekitako babes-agindu guztien erdiak, baina Araban daude hartutako baimen-agindu gehienak.

Gurera etorrira

Debagoienara etorrira, aipatzekoa da Oñatiko Udalak egin duen indarkeria matxistaren diagnostikoa. Sortzen Aholkularitzak egin du hori eta helburua “Oñatin, indarkeria matxistaren argazki bat ateratzea izan da”. Hor jaso dituzten datuek diote, besteak beste, 2013tik 2015era, Ertzaintzan, indarkeria matxistari lotutako 35 salaketa jarri zirela herrian (%66 genero indarkeriagatik eta %33 etxeko indarkeriagatik), eta zerbitzu sozialetara hamabost emakumek jo zutela. Adin tarteari dagokionez, 25-49 urtekoak ziren emakume gehienak.

Ertzaintzan salaketa jarri zutenetatik, %48k tratu txar fisikoak jaso zituzten eta %20k tratu txar psikologikoak. Kasu horietako %45ean erasotzailea bikotekidea izan zen, eta %28an bikotekide ohia. Gainera, hogeitaz agindu eskatu ziren 2013 eta 2015. urteen artean, eta horietatik hamabost onartu ziren.

Ondorio nagusiak

Hainbat ondorio atera dituzte diagnostiko horretan. “Lehen, argitu beharreko nahaste kontzeptual bat dagoela”, adierazi du Susana Manzanedok: “Indarkeria matxista, emakumeen kontrako indarkeria matxista, etxeko indarkeria eta genero indarkeria kontzeptuak nahastu egiten dira, eta horiek argitu behar dira lehenengo”, eta argitu du: “Genero indarkerian erasotzailea beti da gizonezkoa, biktima beti da emakumezkoa eta euren artean bikote harreman bat dago; etxeko indarkeria familia barruan edozein zentzutan gertatzen den indarkeria da; emakumeen kontrako indarkeria matxista emakumeen kontra emakume izateagatik gertatzen den indarkeria mota da eta indarkeria matxistan sartzen da emakumearen kontra emakume izateagatik gertatzen den indarkeria eta baita bere sexualitatea, gorputza edo hizkera dela-eta jasaten diren biolentziatzako egoerak, hala nola lesbofobia, homofobia eta transfobia.

INDARKERIA, EMAKUMEAK ERASOTZAILEAREKIN DUEN HARREMANAREN ARABERA, 2014AN

	EAE	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
GUZTIRA	5.124	659	2.894	1.571
Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria				
	3.864	488	2.187	1.189
Ezkontidea	793	120	450	223
Ezkontide ohia	717	77	445	195
Neska-laguna/ bikotekidea	975	126	543	306
Neska-lagun ohia/ bikotekide ohia	1.288	157	702	429
Emaztegaia	38	2	22	14
Emaztegai ohia	53	6	25	22

Familia barneko indarkeria, bikotekidearena edo bikotekide ohiarena izan ezik

	959	120	537	302
Alaba adingabea	129	18	77	34
Ama	393	52	202	139
Gainerako familiarrak	437	50	258	129

Sexu-askatasuna

Beste harreman mota bat	301	51	170	80
-------------------------	-----	----	-----	----

ITURRIA: GENERO-INDARKERIAREN INFORMAZIO ESTATISTIKOA. EMAKUNDE, EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA.

Indarkeria matxista, “normalizatuta”
Beste ondorio nagusietako bat da indarkeria matxista normalizatuta dagoen zerbait dela, “alegia, normalizat hartzen direla indarkeria diren egoera asko”, eta argitu du: “Normalizat hartzen dira, esaterako, homofobiaren edo lesbofobiaren inguruan egiten diren irainak. Eta irain horiek indarkeria dira”. Kontrol egoerak ere ekarri ditu gogora Manzanedok: “Gazteen artean gehien gertatzen den indarkeria da hori. Zer jantzi behar duzun erabakitzeke edo zure bizitza soziala zer-nolako izan behar den erabakitzeke ahalmena izatea, esaterako”.

Bada, udal diagnostikoarekin atera da argazkia, eta proposamenak egin dira aurrera begira: “Esaterako, koordinazio protokolo bat sortzea eta biktimaren pertsonen erabiltzen dituzten zerbitzu guztietan arreta hori emateko gaitasuna lortzea positiboa litzateke”. Eta gaineratu du: “Gazteekin prebentzioa landu behar litzateke eta ikusten dugu gaztelekua eta kirol zerbitzuak, esaterako, eragile garrantzitsuak izango liratekeela”.

Prebentzioa, klabea
Hain zuzen ere, prebentzioarekin lotuta, gaur bertan abiaraziko den kanpaina diseinatu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. *Aurre!* izena du, eta, azaldu moduan, “prebentzioan ipiniko du indarra”. Gizarte Politikako

disputatu Maite Peñak eta Berdintasunerako organoaren zuzendari nagusi Miren Elgarrestak nabarmendu dute lehentasunezko helburu batetik jaio dela kanpaina: “Gipuzkoa desberdintasunik gabeko lurraldea izatea”.

Aurre! planaren lehentasunezko helburua da politika publiko berria garatzea emakumeenganako indarkeriari aurre egiteko, zeharkako ikuspegi batetik. Lau ardatz nagusi dituen plana da hori: prebentzioa eta sensibilizazioa, biktimei arreta, prestakuntza eta ikerketa.

Elgarrestak adierazi du indarkeriarekin inplikazio zuzena duten eragileekin egin dela plana, eta partaide izan direla udalak, berdintasun teknikariak, emakume elkarteak: “Lituania eta Norvegiara egindako bidaietan konturatu ginen orain arte garatu ez duguna prebentzioa dela eta hor jarri behar dugula azpimarra. Orain arte biolentzia jasaten zuten emakumeei zerbitzuak eskaintzen zitzaizkien, baina hori ez da nahikoa. Prebentzio politikarik ez badago, beti egongo da biktimen etengabeko jarioa”, azaldu du Elgarrestak.

Foru plan horrekin, besteak beste, oinarrizko formazioa eskainiko zaie indarkeria jasaten duten edo jasateko arriskua duten pertsonekin harremanetan dauden langileei. Hori bakarrik ez, arreta maila hobetu dadin Foru Aldundiak eta udalek koordinatuta egingo baitute lan. ■■■■

**BIKTIMAK EAE-N 2014AN
ARAU-HAUSTE MOTAREN ARABERA**

	GUZTIRA	Bikotekidea / Bikotekide ohia	Familia barnekoa	Sexu indarkeria
Giza hilketa eta haren motak	6	5	1	–
Lesioak	460	356	104	–
Askatasunaren kontra	143	89	54	–
Tortura eta osotasun fisikoaren kontra	2.728	2.251	477	–
Gizakien salerosketa	–	–	–	–
Intimitatearen kontra, norberaren irudia edukitzeko eskubidearen kontra, eta abar	2	1	1	–
Sexu askatasunaren aurkakoak	340	13	26	301
Ohorearen aurkako erasoak	1	-	1	–
Familia-harremanen kontra	120	95	25	–
Justizia administrazioaren kontra	665	602	63	–
DELITUAK GUZTIRA	4.465	3.412	752	301
Pertsonen aurkako faltak	659	452	207	–
HUTSEGITEAK, GUZTIRA	659	452	207	–
GUZTIRA	5.124	3.864	959	301

ITURRIA: GENERO-INDARKERIAREN INFORMAZIO ESTATISTIKOA. EMAKUNDE, EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA.

**GENERO INDARKERIAK
HILDAKO EMAKUMEAK**

	EAE	Espainiako Estaturia
2003	0	71
2004	4	72
2005	3	57
2006	3	69
2007	2	71
2008	3	76
2009	2	56
2010	2	73
2011	2	61
2012	2	52
2013	1	54
2014	3	54

ITURRIA: OSASUN, GIZARTE ZERBITZU ETA BERDINTASUN MINISTERIOA. GENERO INDARKERIAREN AURKAKO GOBERNU ORDEZKARITZA.
OHARRA: DATUAK 2014KO ABENDUAREN 31KOAK DIRA

“Biolentzia sexistaren dimentsio desberdinez aritu gara”

ANA MURCIA MUGIMENDU FEMINISTA

Indarkeria matxista birpentsatzen: Feminismotik erantzunak martxan!
izenburupean jardunaldiak egin ditu joan den astean Emakumeen Mundu Martxak Donostian. Mugimendu Feministak indarkeriaren egoeraren gaineko hausnarketak egin ditu, eta etorkizuneko erronkak planteatu. Mugimenduko kide Ana Murcia ere han izan da. **Zein ondorio atera duzue?** Askok izan dira. Terminologiaz eta biolentzia sexistaren dimentsio desberdinez aritu gara, esaterako. Ez hori bakarrik, Mugimendu Feministak ematen dituen erantzunei ere erreparatu diegu. 2013an jarri genuen martxan protokoloa eta erantzun bateratu bat adostu genuen Euskal Herrian emakume bat erailtzen duten bakoitzean emateko. **Erantzunak berrikusi egin behar direla ikusi da?** Berrikusi, landu eta bitartekoen inguruko hausnarketarako epea zabaltzen da. Protokolo desberdinak daude egoera desberdinetan erantzuteko, eta erantzun hori ebaluatuko da aurrera begira eman behar diren erantzunak zehazteko. **Biolentzia sexistaren dimentsioak aipatu dituzu. Zeintzuk dira?** Hainbat biolentzia mota daude eta horiek guztiak egin behar ditugu ikusgarri. Hor dago biolentzia matxista bezala ulertzen duguna eta hor sartzen da emakumeen kontra emakume izateagatik gertatzen den biolentzia. Hor sartuko litzateke genero biolentzia, familia edo bikote heterosexualean artean gertatzen dena. Baita jaietan, esaterako, emakumeen kontra egiten dena ere. Familia barruan emakumeen kontra egiten den



biolentzia oro eta baita lesbofobia, transfobia edo homofobia ere... **Baina badira beste batzuk ere...** Esaterako, emakume etorkinaren kontra gertatzen den biolentzia, adoltozentrismoa, espejismoa... Hainbat biolentzia mota dago eta opresio sistema desberdinen ondorio dira. Neoliberalismoa horiek guztiak areagotzen ari da, gainera. **Gatazka eta gerra guneetan bizi diren emakumeen egoera ere izan duzue berbagai.** Askotan, emakumeak, ihesean, migrazioaren fenomeno horretan esklabotza sexualean, salerosketan edo organoen komertzioan erortzen dira.

“DIOTE BADAGOELA BERDINTASUN LEGE BAT, BAINA EMAKUMEK JARRAITZEN DUTE ERAILAK IZATEN”

Azpimarra egin duzue feminizidioaren gaian. Bai, hori horrela da, baina nabarmendu gura izan dugu bizi dugun egoera honek kolpatu egiten gaituela emakume izate hutsagatik. **Esan daiteke, beraz, egoera ez dela askorik aldatu.** Sistema aldatzen da ezer ez aldatzeko. Diote badagoela berdintasun lege bat, baina jarraitzen dute emakumeak erailak izaten eta erasoak ez doaz gutxira. Biolazio kolektiboak, esaterako, ari gara ikusten errealitate bat direla, Iruñean gertatu zen moduan. **Esango nuke, orain, gutxienez, horietaz berba egiten dela.** Alderdi positiboa da ikusgarri egiten ari direla horrelako erasoak eta sensibilizazio handiagoa dagoela. Horren adibide da Iruñean gertatutakoari eman zaion erantzuna.

“Salaketa ipini aurretik gurekin berba egitea garrantzitsua da”

ANA MOZOS ABOKATUA ETA ESPAINIAKO ABOKATUTZA ELKARGOKO KIDEA

Ana Mozos bergararrak lau urte daramatza EAEko kontseilua ordezkatzeko Madrilen, Espainiako abokatutza elkargoan. Emakumeen kontrako indarkerian espezializatua da Mozos.

Indarkeria jasaten duten emakumeekin lan egiten duzue. Gogorra da.

Oso. Oso gai konplikatu da, sentsiblerik, eta horrela erantzun behar dugu guk. Gure lana salaketa bat dagoen unean hasten da, egunero-egunero 24 orduz gaude guardian eta Ertzaintzatik, osasun zentroetatik edo epaitegietatik jasotzen dugunean deia, han izan behar dugu berehala.

Salaketaren ondoren sartzen zarete prozesuan, beraz.

Bai, eta aldarrikatzen duguna da salaketa ipini aurretik emakumeak gurekin harremanetan ipini beharko lirakeela.

Zergatik?

Ertzaintzara joaten direnerako aholkatuta egon daitezke; une hori oso gogorra da emakume baten bizitzan, eta, askotan, gorde egiten dute gerora baliagarri izan daitekeen informazioa. Oso egoera sentsiblerik da eta une horretan esaten dena oso garrantzitsua da, gero aldeko epai bat lortze aldera.

Horretarako, zein instrumentu duzue eskura?

Legea. 2004an egin zen lege integrala eta hori izan zen inflexio puntua. Horrek definitzen du zer den genero biantzia, ikusgarri egiten du, mahai gainean ipintzen du. Europa mailan dagoen holako lege bakarra da.

Zuen egitekoa emakumearen aldeko epai bat lortzea da.

Hori da. Gure lana emakumea babestea da. Hura eta haren



seme-alabak. Gizonezkoari ipintzen zaizkion debekuen bitartez, emakumearengana eta seme-alabarengana gerturatzeko debekuen bitartez, esaterako. Horregatik, oso garrantzitsua da salaketa egin aurretik gurekin berba egitea, egoeraren arabera, gauza bat edo bestea eskatuko dugulako. Aldeko epai bat lortzeko ahalik eta proba gehien lortzea da gure lana. Horretarako, legeak ahalbidetzen dizkigun instrumentuak baliatu behar ditugu.

Instrumentu horiek zertan hobetu daitezke, esaterako? Generoaren kontzeptua aldatu beharko litzateke, esaterako. Izan ere, lege honek babesten ditu

BIKOTE DIREN EDO IZAN DIREN PERTSONEN ARTEKO TRATU TXAR EGOERAK BAKARRIK BABESTEN DITU 1/2004 LEGEAK”

soilik bikote diren edo bikote izan diren pertsonen arteko tratu txar egoerak. Ez ditu kontuan hartzen kalean gertatzen den bortxaketa bat, sexu eraso bat, irainak, emakumeen salerosketa, ezta prostituzioa ere. Horiek sartu beharko lirakeke lege horren barruan.

Sentsibilizazioa lantzen ari den gauza bat da.

Askok landu da. Askok hitz egiten da, lehen ez zen egiten. Emakume horiek pasatzen duten momentua oso berezia da. Askotan ez dute biktimak bezala ikusi gura euren burua. Oso gogorra da esatea zer gertatzen zaien, batez ere gizonezkoarekin bizi badira, edo tartean seme-alabak badaude. Emakumeak jota etortzen dira. Gure kulturaren oso sartuta dagoen zerbait da. Askotan normalizat ematen da eta hezkuntza mailan eta beste egoera batzuetan egin behar da prebentzioa. Hori izango da klabea etorkizunean. ■■■



ARRASATE

Euskaraz jolastu, euskaraz bizi

Euskal jostailuak



Harrapa ezazu zure EROSKI Izar Solidarioa 1 eurorengatik eta gauza itzazu haien ametsak

Eroskik izarra saltzetik lortutako irabaziak zati berdinetan banatuko dizkie erakunde hauei:

Harrapatu orain!



Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

